

## **Tortura, zein tortura?**

*Euskaldunon Egunkaria*, 1994-09-12: 2.

Indarkeriaz hitz egiten didatenean, galdetzen dut beti zein indarkeriaz ari zaizkidan hizketan. Ez baita gaur hain gaizki bizi dugun indarkeria gure etxean bizi den bakarra; honi datak jartzen hasten garen bezain laster pizten zaizkigu argiak. Ba, torturaz hitz egiten dugunean ere kezka bera sortzen zaigu: zein torturaz ari gara? Gaur burura lehen datorkidan tortura, zortzi intsumiso nafarrei ezarri berri dietena da. Espainiako zortzi haizeetara zabaldu dituzte; batetik, gai beragatik zigortuak diren nafar autonomoak ez dituzte elkarrekin eta bere herrian kartzelaratu, eta bi, beren familiakoenentzat ahal den zailen jarri diote. Ez da hemen lehenengo aldiz aplikatzen duten inbentoa, baina gaur ere funtzionatu du. Espainia aspalditik egiten ari den justizia, bengantzazkoa da. Intsumisoen kasu honetan, gogorkeriaren marka zorrotza, eskarmentuaren zentzua, eransten diote legeari. Orain nafar gazte txukun hauek beren zigorra Nafarroan bertan bete beharrean, nahikoa baita legezko pena!, Espainiako zortzi kartzela apartatueta bete beharko dute; Soria, Daroca, Navalcarnero, Alcalá Meco, Teruel, Ocaña, Ocaña 2 eta Herreran. Une honetantxe "Europar tortura" gaia ikertzen ari direnean, Claude Nicolayk esan du Bilbon, tortura bizirik dagoela gaur ere, eta "errealitate horri aurre egiteko atxilotuaren inkomunikazioa galaraztea beharrezkoa dela". Inkomunikazioa modu askotan aplika daiteke, noski. Entzungorrena egitea ere erraza da: "Tortura, zein tortura?"